

9/14

irizpena

Dekretu Proiektu batzuei buruzkoa

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

9/14 IRIZPENA

Ondorengoei buruzkoa:

- **Seme-alabak beren kargura dituzten familiei babesteko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektua**
- **154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familiaren politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua**
- **177/2010 Dekretua, uztailaren 29koa, familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzei buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua**

Bilbon, 2014ko urriaren 3an

I.- SARRERA

2014ko uztailaren 16an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailerik bidalitako idazkiek sarrera izan zuten eta hurrengoei buruzko txostenak eskatzen zituzten: *“seme-alabak beren kargura dituzten familiei babesteko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektua”* eta *“154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familiaren politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzkoa, aldatzeko dekretu-proiektua”*. Gero, 18an, *“177/2010 Dekretua, uztailaren 29koa, familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzak arautzen dituena, aldatzeko dekretu-proiektuari”* buruzkoa eskatu zuen. Hori guztia 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki egin zuen.

Kontsultatzen zaizkigun ekimen legegile hauek 13/2008 Legeak, abenduaren 12koak, familiei laguntzeko direnak, xedatutakoaren araubidezko garapenak dira; hain zuzen ere, bi Legearen I. eta II. Kapituluei eta II. Tituluari buruzkoak dira eta hirugarrenak aipatu kapituluetan xedatutako laguntzak aplikatzeko Legearen 6. artikuluan aurrez ikusitakoari erantzuten dio.

Horien kopiak berehala bidali zitzaizkien Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak egin eta iritziak emateko, baita lan-batzorde egokian lantzeko ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokion Funtzionamendu Araudiak xedatutakoarekin bat. 2014ko irailaren 17an eta 26an Gizarte Garapenerako Batzordeak lan-saioak burutu zituen eta hartutako erabakietatik abiatuta, Irizpen hau egin zen. Izan ere, Osoko Bilkurak urriaren 3an landu eta aho batez onartu zuen.

II.- GOGOETA OROKORRAK

1. Lehenik eta behin, EGABk familien laguntzak arautzen dituzten hiru dekretu-proiektuei buruz irizpen bakarra egitea erabaki du, familiei laguntzeko 13/2008 Legearen araubidezko garapenak baitira eta elkarren artean harreman estua baitute. Horregatik, iritzi bateratua eman behar dugulakoan gaude.
2. Bigarrenez, Batzordearen iritzi dekretu-proiektuen izapideak ez dira egokiak, batera hartuta, aldaketa sakonak planteatzen baitituzte eta legeak jasotzen duen familiekiko babes-eredua alda baitezakete. EGABren ustez gizarte zibilarekin, gizarte-eragileekin eta abarrekin aldaketa horiei buruzko eztabaida sakonagoak egin behar dira, Gobernuaren proposamen integratu eta gardenetik abiatuta.
3. Eta hori gauzatu behar da, nagusiki, aurkeztutako aldaketek zehaztutako atalaseak eta mugak askoz gehiago xehatu

eta doitu behar baitituzte. Nolanahi ere, aldaketen helburua laguntzak familia-errenta estandarizatuaren arabera zehaztea da, familia-mota eta -egoera desberdinen artean tratuzuzenagoa lortzeko eta, bide batez, progresiboagoa eginez sistema hobetzeko.

4. Beren kargura seme-alabak dituzten familiak babesteko laguntza ekonomikoei dagokienez, laguntzak emateko erabili zen eskubide subjektiboa gogorarazi behar dugu. Hori mantendu arren, orain baldintza ekonomiko batzuen arabera dira eta 13/2008 Legeak, familiei laguntzen dienak, 10.5. artikuluan eta hirugarren azken xedapenean jasotako baldintzei jarraiki, 2020rako Europako Batasunarekin gauzatu behar den konbergentzian atzerapauso bat dira.

Horrez gain, txosten ekonomikoa eskuratutako datuen ondorioz burutu diren kalkuluen arabera, iragartzen den "gastuaren doikuntzak", izatezko bidetik, gutxienez azkeneko urtean jada egindakoari jarraipena ematen dio¹.

5. Eta familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzei buruz, aurkeztutako aldaketa batzuk partekatu arren, laguntza horien egungo egoerarengatik gure kezka azaldu nahi dugu, Gobernuak agortutzat jo baitu 2014. urterako aurrekontu-partida, 2014. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean bertan "kreditu handigarri" bezala kalifikatutako partida denean, arauak 11. artikuluan xedatutakoari dagokionez, III. Eranskinean zehaztutakoaren arabera². Bestalde, familia askok lanaldiak murriztu edo lan-utzialdiak eskatu dituztenean, diru-sarrerak gutxitu dituzte eta, neurri batean, diru-sarrera txikiagoak orekatzeko laguntza jasotzea espero zuten. Hori ere kezkarria da guretzat. Gainera, gehienetan baimenak emakumezkoek eskatzen dituztela kontuan hartuta, murrizketa horiek neurri handiagoan eragiten eta kaltetzen dizkiete.
6. Gobernuaren eginkizunak 13/2008 Legea betetzea eta familien beharrak estaliak gelditzen direla bermatzea direnez, gure iritziz aurrekontu-partidak behar hauetarako hornidura nahikoekin doitu behar dira.

Gogoeta orokor hauek, hiru ekimenei erkideak, amaitu ondoren, Euskadiko EGABk arau-proiektu bakoitzerako honako bereziak egitea beharrezkotzat jotzen du:

III.- GOGOETA BEREZIAK

¹ 2013. urtean, jaiotzak %6,87 eta hasieran aurkeztutako eskaerak %7,05 jaitzi dira. Jaitsierak antzekoak izanik, onartutako eskaerak %55,37 murriztu dira. Aldi berean, programa gauzatzeko guztizko kostuak %40,8 gutxitu dira.

² 4/2013 LEGEA, abenduaren 20koa, 2014. ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen:

"11. artikulua.- Kreditu handigarriak eta finantzabideak.

1.- Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginean (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 24., 25. eta 26. artikuluetan ezarritakoaren aurka jo gabe, lege honen III. eranskinean azaltzen diren kredituak handitu ahal izango dira 2014. urtean, eta handitze-muga bat izango dute, hain zuzen ere, nahitaez onartu behar diren obligazioen zenbatekorainokoa. Kreditu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan sarturik egon beharko dute.

III. ERANSKINAI. KREDITU HANDIGARRIAK

...

14.- Ardurapean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko diru-laguntzak eta familia eta lana bateratzen laguntzeko diru-laguntzak ordaintzeko bideratzen diren kredituak. Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean ezarrita daude diru-laguntza horiek.

1. SEME-ALABAK BEREN KARGURA DITUZTEN FAMILIEI BABESTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA

- 3. artikulua. Kontzeptuak: Jaiotze, adopzio edo adopzio aurreko harreraren egoeratan adin txikikoaren babesa parekatzea oso positiboki baloratzen dugu. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi dugu minusbaliatu bat babestu behar den ustezkoetan, adin txikikoa izatearen baldintza saihestu daitekeela; are gehiago, tutoreek ez dute zaharragoak izan behar. Hala, klausula bat sar daiteke tutorearen eta babestutako pertsonaren artean adin-diferentziak ezin dituela 10 edo 15 urteak gainditu esanez.
- 7. artikulua. Laguntza ekonomikoak zabaltzea: Seme-alaba kargura izateagatik dagozkion laguntza ekonomikoak buruz, 7. artikulua aipamen berezia eskatzen du. Irakurri ostean mantentzeko laguntzak bigarren seme-alaba edo ondoko ondokoak daudenean bidezkoak direla ondorioztatu daiteke. Ez dugu ezagutzen zergatik ez zaien lehenengo seme-alabari aplikatzen.
- 8. artikulua. Laguntza ekonomikoen zenbatekoa: Kezkati gaude dekretu berriak planteatzen dituen aldaketengatik. Irizpideak orokortu dira eta familien errenta-maila kontuan hartuko da. Gainera, bigarren, hirugarren eta ondoko ondoko seme-alabentzako laguntzetan zenbatekoak modu garrantzitsuan murrizten dira, hain zuzen ere, lehenengoetarako lehenengo urtetik bigarrenetarako lehenengo bost urtera 400 eta 900 euroren artean banatzen dira, familia-unitatearen errenta-tartearen arabera. Seme-alaba iristean sortzen diren gastuekiko argi eta garbi urria da.

Era berean, EUSTATen azkeneko estatistika eskuragarriari erreparatu, EAEn batez beste familiaren errenta 42.192 euron kokatzen da 2011. urtean. Gure ustez ardurapean duen seme-alabarengatik laguntza ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa emateko erabiltzen diren 20.000 eurotatik oso urrun dago. Horregatik, dekretu-proiektuak bere egiazko helburua, hau da, laguntzekin seme-alaben mantenu eta zaintza estaltzen laguntzea, bete nahi badu; errenta-maila altuagoak kontuan hartu behar izuzke, Euskadin dagoen gizarte-errealitatearekin bat.

Bestalde, artikulua honek zenbateko ekonomikoak familia-errenta estandarizatuaren arabera finkatzen ditu, LGSren aurreko aipamena ordezkatuz. Aurreko dekretuan bezala, familia-unitatearen diru-sarrerari buruzko mailan ez dago toperik. Ez egoteak errenta txikienei dagozkien zenbatekoetan eragiten du. Beste modu batera esanda, nahiz eta errenta oso altua izan, inor baztertzeko ez denez; praktikan, familia behartsuenei ezin zaie zenbateko handiagorik eman.

- 10. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen egoerak: Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatik ematen diren laguntzei dagokionez, 10. artikuluan jasotako definizioek argi eta garbi mugatzen dituzte diru-laguntza izan dezaketen egoerak. Kontraesana da dekretuaren sarreraren aipatutakoarekin: *“Familiei laguntzeko EAEko erakundearen arteko III. planak, erantzen dituen neurriekin, laguntzak pixkana zabaltzearen aldeko apustua egiten du”*.
- 17. artikulua. Derrigorrezko dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko tokia: V. Kapituluak xedapen erkideak jasotzen ditu, besteak beste, derrigorrezko dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko tokia (17. artikulua). Azkenekoari dagokionez, artikulua honen 4. atalari “familia-unitatean kide diren amaren eta aitaren nortasuna egiaztatzea” eskatzen du, familia-unitateak anitzak direnean, oro har, legeria guztian jasotzen den bezala. Gure iritziz aipamen horren ordez orokorragoa, familia-aniztasuna kontuan hartzen duena, erabili behar izuzateke.
- 28. artikulua. Bitarteko ekonomikoak: Artikulu honek xedatutakoari jarraiki, *“urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan dekretu honetan aurrez ikusitako laguntza ekonomikoak finantzatzeko beharrezkoak diren bitarteko ekonomikoak izendatuko dira. Aurrekontu-ekitaldi baten barruan eman daitezkeen laguntzen bolumen guztiak ez du aipatu izendapena edo, indarreko legeriarekin bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eguneratzearen ondorioz sortutakoa gaindituko”*. Aurrekoaren harira, gure gogoeta orokorretan azaldutakoaren ildotik, idazkera horrek kontraesana du laguntzen eskubide subjektiboarekin, Familiei Laguntzeko Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren babesean. Eskubide subjektiboak babesten dituzten aurrekontu-kredituak, hasieran, halabeharrez kreditu handigarriak dira, beraz, ez da onargarria honako baieztapena: *“Aurrekontu-ekitaldi baten barruan eman daitezkeen laguntzen bolumen guztiak ez du aipatu izendapena edo, indarreko legeriarekin bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eguneratzearen ondorioz sortutakoa gaindituko”*. Dirudienez, aurrekontuaren ikuspegitik laguntza horiek hornitzeko orduan, Gobernuari diskrezionaltasun-tartea utzi nahi dio. Nolanahi ere, laguntzen eskubide subjektiboa urra dezake.

2. 154/2012 DEKRETUA, UZTAILAREN 24KOA, FAMILIAREN POLITIKEN ESPARRUAN FAMILIA-ERRENTAREN ESTANDARIZAZIO-SISTEMARI BURUZKOA, ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA

- EGAB pozik dago proposatutako aldaketekin, arestian haztatutako egoerak parekatzeko aurrerapausoa baitira. Ildo horri eutsiz, koefiziente berria egongo da eskatzailea genero-indarkeriaren biktima bada eta ezkontiderik nahiz izatezko bikoterik gabeko eskatzailearen koefizientearekin (1,3) berdinduko da. Gainera, minusbaliotasuna seme-alabez gain, familia-unitateko edozein kidera zabalduko da (0,3).
- Hain zuzen ere, aldaketa horiek familia-politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistema arautzen duen araudian aurrerapen bat dira, Familiei Laguntzeko Legea sortarazi zuten helburuak (besteak beste, ahulezia-egoera berezian dauden familien gizarte-baztertzeara prebenitzea (4. artikuluko h hizkia) hobeto integratzen dituztenez eta 6. artikulua bera, familia-errenta estandarizatu arautzen duena, modu egokiagoan betetzen denez. Izan ere, errenta horren helburua *“familia-mota eta -egoera desberdinei tratu parekatuagoa eskaintzea”* da.

3. 177/2010 DEKRETUA, UZTAILAREN 29KOA, FAMILIA- ETA LAN-BIZIA BATERATZEKO LAGUNTZEI BURUZKOA, ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA

- Lehenik eta behin, bigarrenetik aurrera adin txikiko bakoitzeko erditze, adopzio, harrera edo babes anizkoitzaren kasuan lan-murrizketa edo -utzialdirako diruz lagun daitezkeen muga 320 egunetan zabaltzeak suposatzen duen aurrerapena onartzen dugu. Gauza bera gertatzen zaigu seme-alaba minusbaliatuen kasuan lan-utzialdiaren denboraldi guztia diruz laguntzearekin (dekretu-proiektuaren 2.4.3. artikulua).

Hala eta guztiz ere, etapa irekia ixten jarraitzen da murrizketaren kasuan hiru urte eta erditik behera seme-alaba berria iristen denean edo lan-utzialdiaren kasuan urte eta erditik behera gertatzen denean. Gure ustez denbora hori metatzen utzi beharko litzateke, gutxienez, bi seme-alaba berri jaiotzen direnean.

- Era berean, positiboki baloratzen da dekretu-proiektu honetan, betiere guraso batek lanaldi murriztuan eta besteak lanaldi osoan lanean badihardute, familia ugari guztiek (kategoria baztertuta) hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatik diru-laguntza jaso ahal izatearen aldaketa (4.2. artikulua).
- Bestalde, harrigarria da jada sarreratik dekretu honek familia-aniztasuna ahaztea eta “ama eta aitaz” hitz egitea. Akats hori artikulua askotan errepikatzen da, hala nola 9. eta 11.ean.
- Eta, amaitzeko, deigarria suertatzen zaigu aldaketa-proposamenak familia-egoitzaren zerbitzuan lanean aritzen diren pertsonak baztertzen jarraitzea, nahiz eta dekretuan 4. artikulua berraztertu³. Ez dugu arrazoiak ulertzen, bereziki, ikuspegi partekatua denean emakumezko askoz gehiagok diharduten eta errenta txikiak dituzten taldearen eskubideen berdintasunean aurrera egin behar dela.

IV.- ONDORIOA

“Seme-alabak beren kargura dituzten familiei babesteko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektuari”, “154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familiaren politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzkoa,

³ 177/2010 Dekretuaren 4.3. artikulua diruz lagun daitezkeen jardueretatik berariaz baztertzen ditu *“lan-utzialdiak edo lanaldi-murrizketak, langileek 1/1995 Errege Dekretu Legegileak, martxoaren 24koak, Langileen Estatutuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 2. artikuluko b hizkian xedatuak dauden lan-harreman bereziak badituzte”*. Horiek familia-egoitzaren zerbitzuan diharduten pertsonak dira.


9/14 IRIZPENA

aldatzeko dekretu-proiektuari” eta “177/2010 Dekretua, uztailaren 29koa, familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzak arautzen dituena, aldatzeko dekretu-proiektuari” dagokienez, Irizpen honetan azaldu diren gogoeta orokor eta bereziekin bat, Batzordearen iritziz araudi-proiektuak izapidetzea ez da egokia.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos